



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

2026KO DIRULAGUNTZEN URTEKO PLANA

LEHIAREN EUSKAL KONTSEILUA

Osoko bilkura:

Ainara Herce San Martín, presidentea

Antonio Julián Rodríguez Esquerdo, batzordekidea

Jorge Aranguren Fernández, kidea

Noemí Angulo Garzaro, idazkaria

Lehiaren Euskal Kontseiluak (LEK), adierazitako kideak bertan direla, 2026ko urtarrilaren 29an egindako bileran, Lehiaren Euskal Agintaritzaren 2026rako Dirulaguntzen Urteko Plana onartu du.



AURKIBIDEA:

I. AURREKARIAK	3
II. ERABAKITZEN DU	4
ERANSKINA	¡Error! Marcador no definido.



I. AURREKARIAK

- (1) Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legeak Lehiaren Euskal Agintaritza (LEA) sortu zuen, izaera administratiboko erakunde autonomo gisa, ekonomia-politikaren eta lehiaren defentsaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita, nortasun juridiko propioarekin eta bere eginkizunak betetzeko jarduteko gaitasun osoarekin.
- (2) LEA/AVCren helburua merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan egiten diren jarduera ekonomikoek dagokienez, eta, horretarako, zehatzeko, sustatzeko, aurkaratzeko, irizpena eta kontsulta egiteko eta arbitrajeko eskumenak baliatzen ditu.
- (3) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak 6.1 artikuluan ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateek garatzen duten dirulaguntza-jarduera alde aurretik planifikatu beharko da, plan estrategiko baten bidez. Plan horretan, honako hauek jasoko dira: helburuak, lortu nahi diren ondorioak, lortzeko behar den epea, aurreikus daitezkeen kostuak, finantzaketa-iturriak eta planaren helburuekin lotutako ekintzak eta adierazleak, haren jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko, betiere aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzearen mende.
- (4) LEKek, 2024ko abenduaren 20an egindako bileran, LEAren 2025-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen.
- (5) Bestalde, 2026rako LEA/AVCren Ekintza Planak, 2026ko urtarrilaren 29ko bilkuran onartuak, bere helburuen artean jasotzen du sustapen-eginkizunak indartzea, zehatzaileak ez diren hainbat mekanismoren bidez eta agente preskriptoreekin lankidetzan arituz.

Ondorioz, LEAk funtsezkotzat jotzen du lehiaren arloko compliance programak finantzatzeko dirulaguntzen programarekin jarraitzea, langile autonomoei, ETEei eta mikroenpresei lehia-arauak betetzen laguntzeko eta, azken batean, merkatuen lehia-funtzionamendua errazteko. Programa 2025ean hasi zen, eta enpresa horien araudia betetzeko programetan lehia aldagaia sartzea sustatzen jarraitu nahi da, beren jarduera lehiaren joko askearen mende jartzen dutela bermatzeko.

2025ean, LEAko lehendakariaren 2025eko ekainaren 25eko Ebazpenaren bidez, dirulaguntzen programarako lehen deialdia egin zen. 4 eskaera jaso ziren, eta horietatik 3 eskatzaileri eman zitzaizen dirulaguntza.

2026rako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legean 20.000 euroko ordainketa-kreditua esleitu da 2026rako, 4. kapituluan, dirulaguntzei buruzkoan, 1.61150.45001 PEP 2025/000457 aurrekontu-posizioan, LEA/AVCren 6115 programan.



- (6) Bestalde, LEA/AVCk proposatzen du, sustapen-ekintzak eta -kanalak proaktiboki aktibatzeaz gain, unibertsitateko ikasleekiko konpromisoa sendotzea — praktiken programaren bidez — eta prestakuntza- eta ikaskuntza-aukerak eskaintzea — Lehia sariaren deialdiaren bidez —.

2025eko ekitaldian, LEA/AVCk, bosgarren urtez jarraian, prestakuntza-beken deialdi publikoa egin zuen (2025eko uztailaren 8ko Ebazpena, LEA/AVCko lehendakariarena). Deialdian hamahiru eskatzailek parte hartu zuten, eta beka 2024ko urriaren 31ko Ebazpenaren bidez esleitu zen. Bekaduna prestakuntza-praktikak egiten ari da LEAren egoitzan — 2025eko azaroaren 10ean hasi eta 2026ko uztailan amaituko da —, eta esperientziaren emaitza oso ona izaten ari da bi alderdientzat.

LEA/AVCk oraindik ere interesgarritzat jotzen du sustapen-lanarekin jarraitzea eta, 2026. urtean, deialdi berri bat egitea goi-mailako unibertsitate-ikasleei prestakuntza teoriko-praktikoa sakondu ahal izateko, LEA/AVCren berezko eginkizunei dagozkien eremuetan.

Era berean, lehiaren arloko ikerketa-lanak egiten laguntzeko, LEA/AVCk Lehia sariak antolatuko ditu, unibertsitate-titulazio ofiziala lortzeko EAEn erroldatutako ikasleek egiten dituzten ikasketa-amaierako lanik onenak saritzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2026rako Aurrekontu Orokorraren Legean, 4.700,00 euroko ordainketa-kreditua esleitu da 2026rako, eta 8.300,00 euroko konpromiso-kreditua 2027rako, 4. kapituluan, dirulaguntzei buruzkoan, 1.61150.45100 PEP 2026/000406 aurrekontu-posizioan, LEA/AVCren 6115 programan.

Gainera, 2026rako 2.000,00 euroko ordainketa-kreditua esleitu du 4. kapituluan, dirulaguntzei buruzkoan, LEAren 6115 programako 1.61150.45100 PEP 2026/000406 aurrekontu-posizioan.

- (7) Horregatik guztiagatik, efikazia eta efizientzia areagotzeko, eta publizitatea eta gardentasuna errazteko, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legearen 9. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, Lehiaren Euskal Kontseiluak honako hau

II. ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Lehiaren Euskal Agintaritzaren 2026rako Dirulaguntzen Urteko Plana onartzea. Erabaki honen eranskin gisa doa.

BIGARRENA: Erabakia argitara eman dadila agintzea, dagozkion bitarteko ofizialen bidez eta, nolana ere, LEAren webgunean: <https://www.competencia.euskadi.eus/>.



ERANSKINA

ARDATZ ESTRATEGIKOA: LEHIAREN KULTURA SUSTATZEA

Helburu estrategikoa

Lehiari eta Lehiaren Euskal Agintaritzaren berezko eginkizunei buruzko prestakuntza ematea unibertsitateko tituludunei.

Dirulaguntzen lerroa

Bekak

Organoa

Lehendakaritza

Programa

6115 Lehiaren Euskal Agintaritzza

Helburuak, ekintzak eta adierazleak

HELBURUA: Lehiaren eta LEA/AVCren berezko eginkizunen arloko prestakuntza ematea unibertsitate-titulua duen pertsona bati.

EKINTZA: Prestakuntza

ADIERAZLEA: Prestakuntza-orduen kopurua (1.000 h).

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publiko osoarekiko

	Urtekoa	Zenbatekoa (€)	%
4. kapitulua	2026	4.700	36,15
	2027	8.300	63,85
	GUZTIRA	13.000	100

Sektore hartzailea (k)

Azken sei urteetan Zuzenbide edo Ekonomia Gradu goi-mailako unibertsitate-titulua izan eta LEA/AVCren berezko funtzioekin lotutako eremuetan prestakuntza teoriko-praktikoan sakondu nahi duten pertsonak.

Emateko prozedura

Urteko deialdi publikoaren ebazpena. Konkurtso-emakidako prozedura, eskaerak aldeztu aurretik deialdian finkatutako balorazio-irizpideen arabera alderatuz.

**ARDATZ ESTRATEGIKOA: LEHIAREN KULTURA SUSTATZEA****Helburu estrategikoa**

Lehiaren kultura areagotzea eta zabaltzea enpresa-eremuan, lehiaren arloko konplimendu-programak diseinatzea eta ezartzea diruz lagunduz, merkatuen funtzionamendu egokia lortzeko.

Dirulaguntzen lerroa

Dirulaguntzak

Organoa

Lehendakaritza

Programa

6115 Lehiaren Euskal Agintaritza

Helburuak, ekintzak eta adierazleak

HELBURUA: Lehiaren kultura areagotzea eta zabaltzea enpresa-eremuan, lehiaren arloko compliance programak diseinatzea eta ezartzea diruz lagunduz, enpresei lehia-arauak betetzen laguntzeko eta merkatuen lehia-funtzionamendua errazteko.

EKINTZA: Lehiaren arloan konplimendu-programak diseinatzea eta ezartzea.

ADIERAZLEA:

Onartutako compliance programen kopurua.

Onuradunen munduko negozio-bolumen osoaren zifra.

Lehiaren defentsaren arloan onuradunei ezarritako zehapenen kopurua.

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publiko osoarekiko

	Urtekoa	Zenbatekoa (€)	%
4. kapitulua	2026	20.000	100
	GUZTIRA	20.000	100

Sektore hartzailea (k)

Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan jarduera ekonomikoa duten enpresak.

Emateko prozedura

Urteko deialdi publikoaren ebazpena. Ondoz ondoko emakida-prozedura, jasotako eskabideen ebazpen ordenatuaren bidez, espedientea osatzen den unearen arabera.

**ARDATZ ESTRATEGIKOA: LEHIAREN KULTURA SUSTATZEA**

Helburu estrategikoa			
Unibertsitate-ikastetxeetako titulazioetako ikasleek lehiaren defentsarekin lotutako gaiei buruzko ikasketen amaierako lana egin dezaten sustatzea eta bultzatzea.			
Dirulaguntzen lerroa			
Dirulaguntzak			
Organoa			
Lehendakaritza			
Programa			
6115 Lehiaren Euskal Agintaritza			
Helburuak, ekintzak eta adierazleak			
HELBURUA: unibertsitate-titulu ofizialetako ikasleek lehiaren defentsarekin lotutako gaiei buruzko ikasketen amaiera sustatzea eta bultzatzea.			
EKINTZA: Prestakuntza.			
ADIERAZLEA: Saritutako eskabideen ehunekoa.			
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publiko osoarekiko			
4. kapitulua	Urtekoa	Zenbatekoa (€)	%
	2026	2.000	100
	GUZTIRA	2.000	100
Sektore hartzailea (k)			
Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatutako ikasleak, unibertsitate-ikastetxe batek emandako titulazioa lortzeko ikasketetan matrikulatuta daudenak eta lehiaren defentsarekin lotutako gaiei buruzko ikasketen amaierako lana egiten dutenak.			
Emateko prozedura			
Urteko deialdi publikoaren ebazpena. Konkurtso-emakidako prozedura, eskaerak aldeztatik aurretik deialdian finkatutako balorazio-irizpideen arabera alderatuz.			